



OLANO IRAZUSTABARRENA familia

PEATZETA Urtsu-Erreka auzoan dago. Bere inguruko baso eta zelaien izenen artean dauzkagu *Etxe barruti*, *Haruzko basoa* eta *Basozabal*.

Auzoko bidea eta, bide ondoan dagoenez, etxerainokoa, 1940an egin zieten. Eskolara bidea oinez egiten zuten ordu laurdenean.

Etxejabeak dira 1930az geroztik, eta 1950ean berritu egin zuten. Etxe berria egiteko *Biandetxe* hargina ibiliko zuten eta etxeko anaia txikiena peoi lanean. Geldi xamar ariko ziren, eta Santos soldaduskatik etorri eta ikusi omen zuenean ezinean zebiltzala, harriak ezin jasorik, Santosek konpondu omen zuen. Eta handik aurrera Biandetxek ez omen zuen harri faltarik izan.

1922an ezkondu ziren Joxe Manuel Olano eta Prantxika Irazustabarrena, Gaintzako *Iozta Azpiko* alaba. Haien seme Santos, *Okobio* baserriko alaba den Maria Dolores Sukiarekin ezkondu zen 1965ean. Etxera ezkondu zirenean aita-amak eta bi anaia-arreba bertan bizi ziren artean.

Zaldibin ezkondu eta Olaberrin bazkaria egin ondoren Madrilera eta Meridara joan ziren ezkonbi-daian.

Baserrian bazuten ganadua, zortzi-bederatzi behi-buru. Baina baita fruta-arbolak ere (gerezia, melokotoia, sagarra...). Baratzean babarruna ereiten zuten eta Ordiziako ferian saltzen zuten, frutarekin batera.

Etxeko anaia Joxek Fabrika Handian egin du lan, 1940az geroztik, eta bizikletan joan ohi zen.

Baserriaren arrastoa idatzietan

Peatzeta baserria agertzen da 1783-12-17an, Francisco Antonio de Echave aurrean, Ene-rio eta Aralarko sailen erabileraz bitartekari bati emandako botere-emaileen artean.

Ordezkarri bakarra agertzen da eta beraz badi-irudi garai hartan etxe-bizitza bakarra zela.

Informazio emailea: Maria Dolores Sukia

Pasadizoak

Zita sartu

Behin batean, etxean tratua egin eta bazeramaten Ordiziara asto-karroan berrehun kilo babarrun eta bitartean tratua egin zuenak zita sartu zien Guardia Zibilei eta hara non harrapatu zituzten Ordiziako Kaxetan: babarrunak kendu eta gainera zortzi mila pezetako isuna ordaindu behar izan zuten.



OLANO SUKIA familia
Santos Olano eta Maria Dolores Sukia.



OLANO IRAZUSTABARRENA familia
Prantxika (ama) eta Mertxe (alaba).



OLANO IRAZUSTABARRENA familia
Prantxika (ama) eta Santos (semea).



....., Prantxika (ama) eta Kaximiro.



OLANO IRAZUSTABARRENA familia
Ramon, Damian, Damianen emaztea, Maria Dolores Sukia, Santos. Atzean Damianen emaztearen semea.